

Durangoko hilerriko hobi komunetan ehortzitakoei aitortza egiteko ordua

Durango • Martxoaren 31ko oroimen ekitaldian, hilerriko hobi komunetan lurperaturikoak eta euren senideak omenduko dituzte. Udalak oroimenerako gune bat sortzea aurreikusi du. • 6



Etartie, bertoko ekoizleek Durangoko Merkatu Plazan zabaldu duten postu berria

Durangaldeko 12 ekoizleek postu berri bat zabaldu dute Durangoko Merkatu Plazan elkarlanean. Kontsumitzaileengana gehiago gerturatzeko pauso berri bat da; gazteengana, kasurako. "Batzuk ezin dira zapatu goizean joan azokara, eta arratsaldean egiten dituzte erosketak", azaldu dute aurkezpen ekitaldian. Askotariko produktuak salduko dituzte: ortuariak, kontserbak... • 4



Geu Be-ren eta pilota eskolaren arteko elkarlana, kirola gaitasun guztietara egokitze

Geu Be eta Durangoko pilota eskola lankidetzan aritu dira otsailean, esku pilotan eta palan elkarregaz gozatzeko



Nork esan du gaitasun bereziak behar direla pilotan eta palan aritzeko? Geu Be taldeak argi utzi du beste behin ere pertsonen gaitasunak askotarikoak izan daitezkeela eta kirolak ez duela mugarik. San Faustoko frontoian izan gara eurekin. • 2-3



Geu Be taldearen eta pilota eskolaren tantoa, aurreiritziak apurtzeko partiduan

Geu Be eta Durangoko pilota eskola elkarlanean aritu dira esku pilota eta pala saioak lantzen. Eragile biek elkarregaz lan egiten duten lehenengo aldia da, baina ez azkena. Elkarrekin tanto gehiago lortu gura dute mugen kontrako partiduan

KIROLA • EKAITZ HERRERA

San Faustoko frontoiko atea zabal-
tzeagaz batera, jokoa, oihuak eta
algarak. Baina ez zuriz jantzitako
pilotarienak, ez babesleak dituz-
ten kirolarienak. Geu Be taldeko
kide nekazinenak baino. Hortxe
dabiltza, pala eskuan hartuta, edo
eskuz, pilota indartsu jo eta hor-
maren kontra bidaltzen. Batzuk
frontis aldean dabiltza jokatzeko,
beste batzuk ezker horman, eta
banaka batzuk erreboten aldean.
Denak nahas-mahas, baina el-
karregaz. Halako batean, oihu
ozen bat. Frontoiko kide guztiak
korro baten bueltan batu dira.
Euretariko batek segidan landuko
duten jokoari buruzko azalpenak
emateari ekin dio. Txaber Zabala
da, Durangoko pilota eskolako
arduraduna. "Joko batean arituko
gara, denok elkarregaz. Pilotan
egingo dugu, frontisean. Huts
egiten duenak frontisean geratu
beharko du, eta beste inork pilota
jotzerakoan hura harrapatzen
ahalegindu beharko du berriro jo-
koan sartzeko", esan die Zabalak.
Ekin diote jokoari. Barreak eta
algarak ez dira falta.

"Geu Be taldean multikirola
lantzen dugu, hile bakoitzean
kirol bat. Ikusi genuen lantzen ge-
nituen kirolen artean ez zegoela

pilota. Sekula ere ez dugu euskal
pilota landu", azaldu du Julen
Bengoak, elkarteko koordinatzaileak.
Eta horri konponbidea ipini
guran, Bengoak bere gertuko
lagunengana jo zuen laguntasun
eske. "Pilotan egiten dudanez,
Txaber Zabalagaz ipini nintzen
hartu-emanetan. Gure elkarteko
kideekin euskal pilota landu gene-
zakeela komentatu nion: esku pi-
lota eta pala. Eta halantxik, elkar-
lan bat hasi dugu. Pilota eskolako
kideekin batera entrenamendu
batzuk egin ditugu", adierazi du
Bengoak. Otsaileko lau asteetan
zehar landu dute pilota, astean
behin.

Entrenamenduak aurrera ja-
rraitzen du. Frontiseko jokoa
amaitu eta beste bati ekin diote
segidan. Elkarteko kideek talde bi
egin dituzte eta ilaran ipini dira.
Frontisari begira ilara bat, eta
errebotera begira bestea. "Entzun
adi. Nik bat, bi eta hiru esanda-
koan, denek aldi berean jo behar-
ko duzue pilota palagaz frontis
aldera, ados?", esan du Zabalak.
"Ondo ulertu duzue, ezta? Nik
bat, bi eta hiru esandakoan". Bai,
jakina. Baiezkoagaz erantzun du-
te denek. Hasi da entrenatzailea
kontaketa: "Bat, bi eta...", eta
atoan egin dute gehienek sakea,

**Geu Be taldean
multikirola lantzen dugu,
hilaro, eta ikusi genuen
euskal pilota eta pala
landu barik izan ditugula
orain arte**

JULEN BENGOK

**Pilota eta materiala
ezagutzea da saio
hauetako helburua.
Ez da entrenamendua,
jolasa baino**

TXABER ZABALA

gogoari ezin eutsita, hiru zenba-
kiari itxaron barik. "Baina ez al
dugu esan hiru zenbatutakoan
egingo dugula sakea? Bat eta bi
baino ez dut esan", bota du Zaba-
lak barre artean, jakinda apropos
luzatu duela etena 'bi' esan eta
gero. Txantxak dira, bihurrike-
riak, kirola jolas modura hartzea
ahalbidetzen dutenak. Horixe de-
lako Geu Be-ren estiloa: umorea,
elkarlana eta hurbiltzen denari
irribarre bat ateratzea. "Elkarteko
kideek pilota eta materiala ezagu-
tzea da saio hauetako helburua.
Berez, ez da entrenamendua, jo-
lasa baino. Eurentzat oso errazak
izan daitezkeen jolasak eta kolpe
motak lantzen ditugu. Azken fi-
nean, ondo pasatzea da asmoa, eta
esku pilota eta pala jokoak ezagu-
tzea", adierazi du Zabalak.

Muga barik

Julen Bengoak dioenez, pilota
eskolaren eta Geu Be-ren arteko
egitasmoak "harrera ona" izan
du. "Gazteak gustura dabiltza,
ondo pasatzen dute", dio. "Aurrera
begira, zer? Bada, hazia ereinda
dago. Beharbada pilota eskolagaz
egin dugun elkarlan honek segida
izango du aurrerantz ere",
dio koordinatzaileak. Txaber Za-
balak ere beste horrenbeste dio.
Pilota eskolak pozarren egin du
elkarlana, eta seguru daude au-
rrerantz ere izango dituztela
antzerik bateko elkarlanak. Gauza
jakina da elkarlanarena. Geu Be-k
urteak daramatzalako pertsonen
gaitasunak askotarikoak izan
daitezkeela aldarrikatzen Duran-
galdean. "Ez dago mugarik, inon
ere. Geu Be-rentzat ez dago muga-
rik. Gure helburua ondo pasatzea
da, ahal dugunagaz gozatzea",
dio Bengoak. Horixe delako Geu
Be-ren estiloa: elkarlana, umore
dosi bat eta eguneroko lana, mu-
gatzen hartzen diren aurreiritziak
birrintzeko.



Geu Be-ko eta Durangoko pilota eskolako kideak.

Askotariko kirola, gaitasunek mugarik ez dutela argi uzteko

Geu Be-k multikirola lantzen du hilero. Hile bakoitzean egokitutako kirol bat. Argazkiotan ikusi daitekeenez, ezerk ez ditu gelditzen.

- 1) Yoga saioak San Faustoko belardian. Iazko maiatza.
- 2) Abenduan lagun arteko partidua jokatu zuten Elorrioko Buzkantzaren kontra.
- 3) Eta dantza egin bitartean gerria mugitzen badugu? Geu Be-k ondo daki hori egiten.
- 4) Beroak sakatzen duela? Zer hobeto Izurtzako errekan bainua hartzea baino?



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldiak
•Automatizazioa eta Robotika Industrialak	Martxoak 24 18:00
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	Martxoak 24 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Martxoak 23 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa	Martxoak 23 18:00
•Mekatronika Industrialak	Martxoak 23 18:00

www.mondragon.edu/lanbideheziketa onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683



Zergatik aukeratu zenuen Automatizazio eta Robotika Industrialak ikastea?

Arrasaten Automatizazio eta Robotika Industrialak ikastea erabaki nuen, alde batetik, zikloa interesgarria iruditzen zitzaidalako eta bestetik, gertutasunagatik, Elorrikoa izanez alboko herrira joatea ez zen arazo handia eta gainera nire lagun gehienek Arrasatera joatea erabaki zutelako.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, ekipo-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer-nolako erronkak egin dituzue?

Lehenengo mailan hainbat erronka egin genituen. Lehenengo nahiko sinplea izan zen, botazio sistema bat egin behar izan genuen klasean landutako ate logikoen bidez. Bigarren ebaluaketan harri birringailu baten kontrola muntatu behar izan genuen armairu baten bidez. Eta hirugarrena, azken ebaluaketan pieza sailkatzaile baten simulazioa programatu behar izan genuen.

2. mailako bigarren ebaluaketan eduki dugun proiektua, klasea binakako edota hiruko taldetan banatu da eta talde bakoitzari maketa bat eman zaio. Talde bakoitzak maketaren kontrola eta segurtasuna programatu behar izan du eta kasu batzuetan maketa muntatu ere bai.

Non ari zara DUALa egiten?

ULMA Handling-en nago DUAL formakuntzan, 2021-eko uda hasieratik. Bertan Ingenieritza elektrikoko departamentuan nago plano elektrikoekin lanean. Oso pozik egon naiz hasieratik, bai lanpostuarekin bai lankideekin. Lehenengo mailan ikasi genuen nola egiten diren plano elektrikoak EPLAN-en bidez, eta enpresan programa berdina erabiltzen denez nahiko azkar inorporatu nintzen.

ULMA Handling-ek bi eremutan egiten du lan, alde batetik biltegi automatizatuak diseinatzeko eta beste aldetik aireportuetako zinta garraiatzaileak.

Enpresan eginiko lanetan, zikloan ikasitakoa erabili duzu?

Lehenago esan dudana bezala klasean ikasitako plano elektrikoek esker azkar hartu nuen laneko dinamika, baina egia da ez dela klasean bezalakoa ezer. EPLAN Software erabiltzen dugu planoak egiteko gehien bat. Enpresan egindako lana ez da lan indibiduala eta zerbait txarto egiten bada besteengan eragin handia izan dezake.

Nire esperientzia lanpostu honetan oso onuragarria izan dela uste dut. Klasean landutakoa sakondu dut eta gainera beste gauza asko ikasi ditut.

Orain daukazu ikuspuntuarekin, zein asmo duzu hurrengo kurtsoarako?

Hurrengo kurtsoan mekatronikako gradua ikasteko asmoa daukat. Ziklo honetan laborategian egindako praktikei alde teorikoa gehitu nahi diet, eta, horretarako, zikloa egitea ideia zoragarria iruditzen zait. Lan mundura begiratuta alde teorikoa ikasita eta alde praktikoa ondo landua edukiko dudanez, lana lortzeko errazagoa edukiko dudala uste dut.



Xabier Gallastegi (Elorrio)

Durungaldeko hainbat ekoizlek Durangoko Merkatu Plazako postu bat hartu dute euren produktuak saltzeko

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Merkatu Plazak postu berri bat du eguenetik. Kontsumitzaileengana gerturatzeko beste ahalegin batean, Soloko nekazarien elkartearen dauden Durungaldeko 12 ekoizlek Etartie izena duen postua zabaldu dute elkarlanean. "Etartie baserrietako ataria edo sarrera da eta postuaren izenak irudikatzen du kontsumitzaileek gure produktuetarako sarrera berri bat izango dutela aurrerantz", adierazi du aurkezpen ekitaldian Soloko elkarreko kidea den Urdaspal Alberdik.

Merkatu Plazako postuen esleipena amaitzera zihoanean eta udalak berriro lehiaketara ateratuenean, egitasmo berria martxan ipintzeko abagunea ikusi zuten. "Geure artean berba egin eta baietz erabaki genuen, ahaleginduko ginela gure produktuak kontsu-

mitzaileengana oraindino gehiago gerturatzeko", adierazi du Alberdik. Harrezkero, prozesu "luzea" izan dute ideia errealitate bihurtzeko, seguruenik bidean aldaketak izango dituen, baina denboran irauteko helburua duena. "Bidea urratzen hasi gara eta orain ez dugu atzera

egingo", gaineratu du.

Postua martitzenetik barikura da go zabalik. Martitzen eta eguaztetan arratsaldean zabalduko dute, 17:00etatik 19:30era. Eguenetan, arratsaldean ez ezik goizean ere bai, 11:30etik 13:30era. Barikuetan, goizean egongo da zabalik.

Ekoizle batzuek Durangoko azokan postua ipintzen dute zapatu goizetan. Gune hori ere baliatu gura dute bezeroen artean postu berria ezagutarazteko. Horregatik, Aste Santura bitartean Etartie zapatu goizetan ere zabalik egongo da, azokara doazenek bide batez

postua bisitatzeko aukera izan dezaten.

Postu bat astegun arratsaldetan zabaldua, jende gazteagoarengana heldu gura dute. "Batzuk ezin dira zapatu goizetan azokara joan eta euren erosketak arratsaldetan egiten dituzte", azaldu dute.

Ekoizle guztiak Durungaldekoak dira eta bertoko produktuak eskainiko dituzte, ia denak ekologikoak. Hiru ekoizle lurretakoak dira: Bizio (sagardoa eta edariak), Patxikobaso (ortuariak, fruta eta ogia), Bejondeizula (ortuariak eta kontserbak). Beste hiru ekoizle Elorrikoak dira: Belaze (esnekiak eta txerrikiak), Pulla Baserria (ortuariak) eta Delikatetxe (salda, kontserbak). Ekoizle bi abadiñarrak dira: Urien (gazta, euskal txerrikiak eta kasinak) eta Erlia (arrautza ekologikoak). Izurtzako, Garaiko eta Berrizko postu bana ere badaude, Eskubaratz (barazkiak), Garai (garagardoa eta kontserbak) eta Artizar (ortuariak), hurrenez hurren.



Apirilaren lehenengo astean hasiko dira Ezkurdiko frontoia berrizten 1,3 milioi euroko inbertsioagaz

Lanak datorren urte hasierarako amaitzea aurreikusi dute. Teilatua aldatzeak hartuko du aurrekontuaren zatirik handiena



Frontoia erabiltzen duten kirol klubetako arduradunek eta udal ordezkariak martitzenean egin zuten agerraldia.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak apirileko lehenengo astean hasiko da Ezkurdiko frontoia berrizten, eta lanak datorren urte hasierarako amaituta egotea aurreikusi du. Udal ordezkarien berbetan, "oso inbertsio garrantzitsua" izango da. Obra osoa ia 1.300.000 euroko aurrekontuagaz egingo dute; tartean, Bizkaiko Foru Aldundiak ipinitako 488.000 euroak barneratuta.

Obrek lau ildo nagusi izango dituzte: teilatua aldatzea, sarbide eta irisgarritasun lanak egitea, kan-txa berriztea eta efizientzia energetikoari loturiko lanak egitea. Teilatua aldatzera bideratuko da aurrekontuaren zatirik handiena. Izan ere, azken urteotan hezetasu-

nak eta itoginek hartuta egon da frontoia, bertan aritu diren kirol klubek lana oztopatzeraino. Honako hauek dira egingo dituzten beste eraberritze batzuk: frontisa, ezkerreko horma eta zorua berriztea, zesta-puntarako erabiltzen den sarea aldatzea, kantxarainoko irisgarritasun lanak egitea eta energia efizientziari loturiko aldaketak egitea.

Obrak ia 1,3 milioi euroguz egingo dituzte; Bizkaiko Foru Aldundiak 488.000 euro ipiniko ditu

Lanek irauten duten bitartean, kirol klubak beste leku batzuetan entrenatuko dira. Pala eta pilota eskolakoak San Faustoko frontoian. Partiduak Mañariko frontoian jokatuko dituzte. Puntistak Kurutziaga ikastolako frontoian entrenatuko dira eta Izurtzako frontoian jokatuko dituzte partiduak.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko marxoaren 18a
20. urtea - 886. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

2015 **Bikam**
Produktu hau kontsumitzaileei erabiltzeko materialak dira eta Bako Kudeaketa Zuzentzaia dutea

PEFC kiurtagia
Produktu hau kontsumitzaileei erabiltzeko materialak dira eta Bako Kudeaketa Zuzentzaia dutea
PEFC14-38-0025
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Aranzadik otsailean egindako prospekzioa.

Martxoaren 31ko oroimen ekitaldian, hobi komunetan lurperaturikoak omenduko dituzte

Ekitaldia Andra Mariko elizpean egingo dute, hobi komunetan ehortzitako biktimak eta euren senideak omenduta. Udalak biktimei duintasuna bueltatzeko espazio bat sortzeko asmoa du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Martxoaren 31ko oroimen ekitaldian bonbardaketaren lekukoak eta biktimak omentzen dituzte urtero. Aurten, hilerriko hobi komunetan lurperatuta egon zirenei eta haien senideei egingo diete aitortza. Halantxik jakinarazi dute Gerediaga elkarteak, Durango 1936 elkarteak eta Durangoko Udalak. Oroimen ekitaldia Andra Mariko elizpean egingo dute, Gerediagak eta Kriskitin dantza taldeak elkarlanean. Eta bertara gonbidatu dituzte hobi komunetan lurperatu zituztenen senideak. "Bonbardaketan hildako 84 biktima hilerrian lurperatu zituztela badakigu. Gaur egun han ez daudela ere ziur dugu. Beraz, orain zer? Momentua da aitortzarako. Aitortza instituzionala eta aitortza herritarra egiteko. Hori dela eta, Martxoaren 31ko oroimen ekitaldian, modu anonimoan, modu desegokian eta ahanzturan hobiraturiko biktimak omenduko ditugu. Lurpera-

turiko 50 bat biktima identifikatu ditugu eta lortu dugu horietariko 30 familiagaz hartu-emanetan ipintzea. Senitarteko horiek gon-

"Momentua da aitortza egiteko; aitortza instituzionala eta aitortza herritarra egiteko"

bidatu ditugu oroimen ekitaldira, plaza publikoan aitortza jasotzera", azaldu du Beñat Gaztelurrutia Gerediaga elkarteak. Ekitaldia 19:30ean hasiko da.

Duintasunerako espazioa

Bestalde, Durangoko Udalak aurreratu du oroimenerako espazio bat ipiniko duela hilerrian, behinola hango hobi komunetan lurperatuta egondako biktimei duintasuna bueltatzeko. "Espazio duina sortu gura dugu, 85 urteren buruan familia askok ez dutelako

euren senideak omentzeko espazio propiorik", adierazi dute Ima Garrastatxu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak. Oraingoz ez dute oroimen espazioaren ezau-garririk jakinarazi, baina Garrastatxu alkateak aurreratu du ideia lehiaketa bat martxan ipiniko dutela, eta espazioaren diseinua biktimen senideekin elkarlanean egin gura dutela. Momentu honetan, azterketa teknikoak egiten dabilta gunea sortzeko. Udalaren asmoa da gunea datorren urteko Martxoaren 31ko ekitaldietarako prest egotea.

Gerediagak, Durango 1936 elkarteak, udalak eta Aranzadik ikerketa bi egin dituzte azken hileotan. Batetik, hobi komunetan lurperaturikoak izen-abizenekz identifikatzeko ikerketa egin dute. Bestetik, prospekzioa egin dute, hobi komunetan zeudenak topatzeko. Euren arrastorik agertu ez denez, eragileek aitortza egiteko sasoia dela aldarrikatu dute.

Benita Uribarrenaren "kemena eta konpromisoa" gogoratu dituzte bere omenaldian



DURANGO • J.D.

Eguaztenean, Benita Uribarrena Bollain (Durango, 1922 - Le Soler, 2011) borrokalaria antifaxistak 100 urte egingo zituen egunean, Durangoko Etxezarreta Jauregian omenaldi ekitaldia egin zuten bere bizitza gogoratzeko.

Maria Gorosarri EHUko irakasle eta Durango 1936 kultur elkarteak kideak gidatu zuen ekimena. Omenduaren berri lehenengoz noiz eta zelan izan zuten kontatu zuen, eta Uribarrenaren alaba Marina Fuster-ek bidalitako gutuna irakurri zuen.

Horren ondoren, Ima Garrastatxu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak berba egin zuten. "Emakume eredugarria izan zen, kemena eta konpromisoa

erakutsi zituen eta garrantzitsua da bere oroimenak guztiongan bizirik irautea", adierazi zuen Garrastatxuk. "Bere idealekin justizia defendatu zuen eta zapalkuntzaren kontra altxatu zen", adierazi zuen Riosek.

Horren ondoren, Kristina Mardaras bertsolariak hainbat bertso kantatu zion Uribarrenari eta Kriskitin Dantza Taldeko dantzari bik Agurra eskaini zioten. Gehi Zazpi taldeak ekitaldi osoa girotu zuen bere musika-gaz.

Omenaldia kalean amaitu zuten, omenduaren izena daraman parkean. Han, Uribarrenaren alabak Frantziatik bidalitako lore sorta bat utzi zuten bere plakaren ondoan.

Botoa eman dutenen %83k akordiorako oinarria babestu dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

1.557 herritarrek parte hartu dute PERlaren akordiorako oinarria baliozkotzeko bozketan. 1.298 herritarrek (botoen %83,4) aurre akordioa babestu dute; 231k baztertu egin dute (%14,8),

eta 28k (%1,8) zuri bozkatu dute. Hemendik aurrera, alde biek hitzarmena egiteko prozedurari jarraituko diote. Gobernu taldea pozik dago emaitzagaz, "proiektu sozialago baterako aurreakordioa" lortu dutela iritzita. 18 solairuko dorreak ez direla egingo berretsi dute. EAJ, oster, kritikoa agertu da. "Antzerkia egitea" leporatu dio gobernu taldeari, herritarren %5,2k "bakarrik" parte hartu dutela eta.



martxoak 10 - 30

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Oinak lurrean



Bete ezazu despentsa urte guztirako



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Estibaliz Amesti eta Ruben de Castro 'Rufo' bikoteak Amorebieta Waterpolo taldea sortu zuten 2017an. Durangaldeko umeei kirol hau ezagutzeko aukera ematea zuten helburu. Bost urtean, ibilbide oparoa egin dute. Denboraldi honetan, 24 gazte dabilta Larreako kiroldegian entrenatzen eta, batez ere, ondo pasatzen. Horixe dauka-eta waterpoloak: uretako kirolen xarma eta talde kirolean aritzeak eskaintzen duen dibertsioa.

Zelakoa da waterpolo?

Estibaliz Amesti: Kirol zoragarria eta dibertigarria da. Edonork parte hartu dezake, mutilek zein neskek. **Zelan sortu duzue Durangaldeko lehenengo waterpolo taldea?**

Ruben de Castro: Ibef eta heziketa fisikoko magisteritza ikasi nuen, Gasteizen. Unibertsitatetik bueltan, Sakonetako kiroldegian klub berri bat martxan ipini zuten eta lagun batzuen bitartez han hasi nintzen. Ni judoaren mundutik nentorren. Estiri ere sartu nion kloroa odolean [barrez], eta bera ere hasi zen waterpoloan. Nesken taldea nazional mailara igo zen eta entrenatzaileak laguntza eskatu zidan prestakuntza fisikorako. Bigarren entrenatzaile aritu nintzen. **E.A.:** Zornotzara etorri ginen bizitzera, eta umeak eduki genitue-nean eurei beste kirol bat ezagutzeko aukera ematea pentsatu genuen. Horrela sortu genuen taldea, 2017an, igeriketa taldeagaz batera. **R.C.:** Bagenekien Durangaldean ez zegoela horrelako talderik. Kirol mundua asko gustatzen zaigu eta umeei kirol berri bat ezagutzeko

"Durangaldeko umeei kirol berri bat ezagutzeko aukera eskaini gura genien"

Waterpolo indarra hartzen dabil Zornotzan. Gaur egun 24 neska-mutil dabilta Amorebieta Waterpolo taldean



aukera eskaini gura genien. Horixe aukeratu genuen eta aurrera eramandu dugu asmoa. Oso harro gaude horretaz.

Zenbat neska-mutil dituzue taldean?

E.A.: 24 bat neska-mutil, benjamin eta alebin mailetan banatuta.

R.C.: Orain urte bi proiektuari bueltzada bat emateko asmoa genuen,

baina ezin izan genuen, pandemia-gaitik. Orain harrituta geratu gara. Uste genuen beherantza egingo genuela, eta kontrara, ume asko apuntatu dira. Momentu honetan, alebinen mailako taldea oso batua da eta pozik dabilta. Emaizak ere onak izan dira, ondo gabilitza ligan eta horrek ere laguntzen du.

Zer dauka kirol honek?

E.A.: Uger egitea oso osasuntsua da eta, gainera, baloiagaz oso dibertigarria da. Gainera, edonork jaurti dezake atera. Ez dago aurrelaririk golak sartzeko edo atzelaririk defentsa lanerako, fubolean lez. Denek defendatzen dute eta denek jaurti dezakete baloia atera.

Zein ligatan jokatzeko duzue?

E.A.: Eskola kirolaren barruan gaude eta Bizkaiko beste talde batzuekin jokatzeko dugu. Bestalde, Aste Santuan Tarragonara joango gara txapelketa batean parte hartuz. Joko garbia erakustea eta umeek ondo pasatzea da helburua.

Garaiko landare eta lorezaintza azokaren zortzigarren edizioa antolatu dute apirilaren 10erako



Aurreko edizio batean Garain egindako landare azokako argazkia.

GARAI • JONE GUENETXEA

Apirilaren 10erako VIII. Garaiko Landare eta Lorezaintza azoka antolatu dute. 10:00etatik 15:00etara izango da. Azokan deneriko produktuak salgai ipiniko dituzte: Euskal Herri osoko Mintegien landareak/loreak, lorezaintzako lanabesak eta baserri tresnak ikusteko eta erosteko aukera izango da. Landare apaingarriak, zuhaixkak, kaktusak, landare haragijaleak, baratzerako Euskal Herriko hazi ekologikoak, orturako landare ekologikoak,

Bestalde, eskualdeko 3-4 baserriarrek Durangaldeko baserrietako produktuak dastatzeko eta erosteko aukera emango dute. Artisaren bat egotea ere aurreikusitako dute.

Aurten ere erosketetarako zaindegi edo kontsigna zerbitzua egongo da. Azokazaleek erosketak kon-

tsigna batean gorde ahal izango dituzte azokako giroaz gozatzeko, eta etxera joateko momentuan hasieran eman zaien txartelagaz erosketak bueltatuko dizkiete. Azoka gunean zehar erosketak kontsignara eramateko laguntzaileak egongo dira.

Apirilaren 5ean, azokagaz lotutako berbaldia eskainiko du Aitor Onaindiak

Apirilaren 5ean, azokagaz lotutako berbaldia eskainiko dute: Berez ernetutako basoen kudeaketa eta Bioekonomiari buruzko hitzaldia. Arratsaldean izango da, 19:00etan, Garaiko Udaletxean. Hitzaldia Aitor Onaindiak Berezartutako emongo du, Mendi ingeniaria da eta Basoa Fundazioko zuzendari teknikoa da.

Zornotzako Udalak Zubiondo parkeko Skatepark berriaren obra esleitu du

DURANGO • JONE GUENETXEA

Pista berria egungo skateparkaren kokaleku berean eraikiko dute eta lanak hasita, obra lau hilabeteko epean amaituko dute. "Skatepark berria gaur egungoa baino zabalagoa izango da, inguruko berdeguneak ere bere egingo baititu, urbanizazioan erabat integratuz", azaldu dute udal arduradunek. Bi modalitate nagusiak praktikatu ahaliko dira: street-a eta park-a. Guztira 270.000 euroko inbertsioa egingo dute. Diseinu aldetik, hainbat elementu instalatuko dituzte, guztiak skatepark bakar eta oso batean integratuz. "Patinatzeko linea guztiak egongo dira erabilgarri. Egokia izango da hasiberrientzat zein esperientzia handiagoko erabiltzaileentzat".



Ostalaritza gida



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Zornotza



XIBERU
Zezilia Gallartzagoitia, 9
Tel.: 946181758
Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

Durango



AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behea, DURANGO
Tel.: 946 232 240
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!

Abadiño



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

Durango



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Gosari eta pintxo aukera haundia giro ezin hobean.

Iurreta



GAUARGI
Dantzari Etxetaldea, IURRETA
Tel.: 944 356 674
Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...

Durango



IBAIZABAL
Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO
Tel.: 946 550 185
Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



Elorrioko Udalak eta Lajwadek martxan ipini dute Saharako umeak hartzeko programa

Udako hileetan Elorrion umeak hartu gura dituztenek martxoaren 25a baino lehenago eman beharko dute izena

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Pandemiak gizarteko hainbat esparru kaltetu du, baita Oporrak Bakean programa ere. Hala ere, Elorrioko Udalak eta Lajwad elkarteak berriro ere martxan ipini dute programa aurten, 'Aurten bai! Aurten elkartuko gara' lelopean. "Berriro ere, bereziki zoriontsu egiten gaituen Oporrak Bakean programa berreskuratu dugu. Ekimen hau martxan ipinita, saharar herria-

ri laguntzea da gobernu talde honen ezaugarrietariko bat. Herri horri, herrialde horretako umeei elkartasuna adieraztera animatu gura ditugu herritarrek. Harrera familiak behar ditugu", adierazi du Maria Herrero alkateordeak.

Udan, uztailean eta abuztuan, 2014an jaiotako adingabe sahararrak hartu gura dituzten herritarrek Oporrak Bakean programaren bitartez egin dezke-

hori. Horretarako, martxoaren 25a baino lehenago eman beharko dute izena. Informazio guztia Elorrioko Udalean edo 688 611 488 telefonora deituta jaso daiteke.

Udalak 6.000 euro ipiniko ditu adinekoen osasuna eta ongizatea hobetzen laguntzeko.

'Nagusi aktiboak' martxan

Asteon udalak jakinarazi du 'Nagusi aktiboak' programa martxan ipiniko dutela. Programa honen asmoa adinekoen osasuna eta ongizatea hobetzen laguntzea da. Udalak 6.000 euro ipiniko ditu horretarako.



Oporrak Bakean programako ume sahararrak Elorrion.

Elorrion elkarretaratzea egin dute 'Herria itotzen ari zarete' lelopean

AHTaren lan inguruetan "bizitzea ez dela erraza" salatu zuten zapatuan Elorrion egindako kontzentrazioan

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen zapatuan, dozenaka lagunek elkarretaratzea egin zuten Elorrion, AHTaren lan inguruetan bizitzea "ez dela erraza" salatzeko. "AHTaren obra inguruetan ia ezinezkoa da bizitzea", adierazi zuten elkarretaratzean. Bertan azaldu zuten, "lan horien ondorioz leherketa handiak egoten dira etxebizitzetatik gertu, eta edozein ordutan. Auzoetatik kamioi astun asko pasatzen da, landa bideak moztu egin dituzte, argi poluzioa

ikaragarria da gauez, Zumelegi errekan isurketak egin dira behin baino gehiagotan, eta desjabetze ez justifikatu ugari izan dute", besteak beste.

"Egoera hau jasanezina da herriarentzat eta herritarrentzat, eta hau salatzeri gatz. Nahikoa da. Aidazu, Iguria eta Elorrioko gainerako auzoak bizirik gura ditugu, baita basoak ere. Herria itotzen ari zarete", salatu zuten kontzentrazioan baturiko ki-deek.



Zapatuan dozenaka lagun batu ziren elkarretaratzean.

Atxondon bost euroko deskontu bonuak banatuko dituzte herritarren artean

Bonuak martxoaren 15etik aurrera eskuratu daitezke, udaletxean, izakinak agortu arte

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko merkataritza biziberri-zen jarraitzeko asmoz, Atxondoko Udalak deskontu bonuen kanpaina berri bat ipini du martxan. Oraingoa hirugarrena da. Kanpaina honetarako, Atxondoko Udalak 10.000 euroko diru partida ipini du eta 5 euroko deskontu bonuak banatuko dituzte herritarren artean, doan. Pertsona bakoitzak bonu bi eskuratu ditzake gehienez, udaletxean.

"Orain urte bi, deskontu bonuen kanpaina bat martxan ipintzea erabaki genuen, pandemiaren ondorio ekonomikoak zelanbait arintzen laguntzeko, baina uste dugu horrelako ekimenak egonkortzen jarraitu behar dugula", azaldu du Xabier Azkarate alkateak.

Bonuak kanpainari atxikitako saltoki eta establezimenduetan trukatu ahalko dira, 10 eurotik gorako erosketetan. Honako hauek dira kanpainara atxikitutako establezimenduak: Martxel

harategia, La Kompra, Kiosko Atxondo, Aitzpe, Asun ileapaindegia, Alboan psiko gunea, Arrieta farmazia, Olazabal azpikoa, Gazte Lekua, Penalty, Amillena eta Tope.



Atxondoko Udalak banatuko ditu bonuak.

"AHTaren lanetako kamioi kopuruak ez du gehieneko kopurua gainditu"

Abadiñoko Udalaren enkarguz, radarrak ipini dituzte Neurin eta Mendiolan kamioien mugimendua kontrolatzeko

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO


Abadiñoko Udalak joan zen astean prentsa ohar baten bitartez jakinarazi zuenez, AHTaren lanetan parte hartzen duten kamioi kopuruak ez du gehieneko kopurua gainditu, udalaren enkarguz egindako ikerketaren arabera. Azterketa horretarako, Neuriko eta Mendiolako sarbideetan radarrak ipini zituzten, eta radar horiek jasoriko datuen arabera, kamioien joan-etorria "asko murriztu da" aurreko hileekin alderatuta.

Urtarrileko eta iazko abenduko datuen arabera, kamioi gutxiago ibili da sarbide horietan. "Mendiolako neurketa puntuan, 315 denbora tarte ezarri ziren kamioiak igarotzeko, eta ibilgailu

astunen gehieneko kopurua bi tartetan baino ez zen gainditu abenduan, eta urtarrilean behin ere ez", azaldu du Abadiñoko Udalak oharrean. Irazolan, oster, 315etik lau tartetan gainditu zen abenduan, eta bitan (300dik) urtarrilean. Neuriko sarbidean, oster, hamalau tartetan gainditu zen kopurua. Datu hori "hobekuntza garrantzitsu" lez hartu dute. "Abuztuan 228 tartetan gainditu zen, adibidez".

Azterketa hori ikusita, maximoak "oso noizbehinka baino ez direla gainditu" eta "ibilgailu astunen gehieneko igarotzea eta igarotze osoa gainditzeko tarteen kopurua nabarmen murriztu" dela azaldu dute udaletik.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria


Dakizuenek, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

Naia
Zabala
Azumendi
11587 kol. zk.



keinu

- Optometria teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio
neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoportometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia
klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, beheka 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09



AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
www.medicinaesteticaDurango.com

Obesitatea-zelulitisa, Laserra:
depilazioa, barizeak, tatuajeak behin
betiko kentzeko laserra..
Adinaren kontrako tratamenduak:
orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6 / 48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zaindus
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
beheka eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Ukrainaren aldeko kontzertu solidarioa Vanessa Goikoetxearen eskutik Durangon

Durangaldean hainbat ekimen antolatu dute gerratik ihesi doazen errefuxiatuei laguntza emateko

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Vanessa Goikoetxea soprano durangarrak kontzertua eskainiko du zapatuan Begoñako basilikan. Bestalde, domekan, martxoak 20, 18:00etan, Durangoko Andra Mari-ko basilikan abestuko du Miriam Cepeda organista bidelagun izango duelarik. Sarrera librea izango da eta donazioa eskatuko dute gerrako biktimei laguntzeko. Batutako dirua Caritas eta Save The Children elkartei emango dietela azaldu du sopranoak.

Mallabitik Ukrainara

Beste herri batzuetan ere laguntza batzen hasi dira. Mallabiko Udalak, Lurraldebuseko gidariekin lankidetzan, Ukrainarako hainbat elikagai eta material biltzeko kanpaina hasi du. Gune bi prestatu dituzte elikagaiak, higiene artikulak eta hotzerako materiala (lo-zakuak, mantak...) batzeko: udaletxean 10:00etatik 14:00etara, eta kultur etxean 16:00etatik 19:00etara. Herritarrei parte hartzeko deia egin diete.



Vanessa Goikoetxea.

Berrizburu futbol zelaiko itxitura berrizten hasi dira asteen

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak Berrizburuko futbol zelaia hobetzeko lanei ekin zien astelehenean. Hori horrela, futbol zelaiko hormigoizko harresia ordezkatu egingo dute datozen asteetan, eta instalazioaren kanpoko hesia ere berritu egingo dute. Udaletik azaldu dutenez, lehenengo lana egungo horma eraistea izango da, eta horren ordez kirol hesiak ipiniko dituzte. "Horrek segurtasun handiagoa emango du", esan dute. Bestalde, kirol instalazioen kanpoko itxitura ere konponduko dute, erabiltzaile guztiak sarrera nagusitik sartu daitezen zelaira.

Lan hauek 68.474 euroko aurrekontua izango dutela jakinarazi dute Berrizko Udaletik.

Iurretako V. Beer Azoka antolatu dute zapaturako

Lau garagardogilek parte hartuko dute; antolatzaileek 17:00etatik gauerdia arteko egitaraua prestatu dute

IURRETA • JONE GUENETXEA

Iurretako V. Beer Azoka antolatu dute zapaturako. Guztira, lau garagardogile batuko dira Askondoko aterpean. Horrez gainera, Durangaldeko Bizio gastronomia proiektuak parillan erretako haragi ketua ba-

natuko du. KSKAkoek biniloko musika ipiniko dute, 17:00etan, eta garagardogileekin berriketan aritzeko aukera egongo da, 19:00ak bitartean. Igel txapelketa ere egingo dute. Jaimones eta Galazota taldeek kontzertuak eskainiko dituzte.



Orain hiru urteko Iurretako Garagardo Azokaren irudi bat.

Bilboko Mendi Filmeko ikus-entzunezkoak Zaldibarren

'Harria Herria' dantza bertikalaren ikuskizuna izango da maiatzaren 5ean Oreka TX taldeko txalapartariekin

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Bilboko Mendi Film nazioarteko jaialdiko filmik onenen zirkuituan sartu da Zaldibar. Horrela, martxoaren 24an hiru film proiektatuko dituzte, liburutegi zaharrean: *Amagana*, *Fire in the fingers* eta *The Traverse*. *Amagana* ikus-entzunezkoak euskarazko filmik onenaren saria jaso du Bilboko jaialdian. Filmak Itziar Zabala Dimako eskalatzailea du protagonista. Baltzolako eskalada bideetan hazitako eskalatzaileak Bihotz Gorosperen ahotsa eta musika ditu bidelagun.

Hain zuzen ere, martxoaren 28an, Bihotz Gorosperen kontzertua izango da, 18:30ean, liburutegi zaharrean. Egitarauari ginga ipintzeko, *Harria Herria* dantza bertikalaren ikuskizuna

izango da, maiatzaren 5ean, 20:30ean, Olazar pilotalekuan. Harrobi Dantza Bertikala taldearen ikuskizun honek Oreka TX txalapartarien musika du, harrietatik jaio eta dantzariak hormetan dantzan ipintzen dituen. Ekitaldi hauetara joateko

'Amagana'-k euskarazko filmik onenaren saria jaso du. Itziar Zabala Dimako eskalatzailea du protagonista

sarrera doakoa izango da, baina aldezturik jaso beharko da, liburutegi zaharrean (Euskal Herria kalea, 5 behe).

Mañarian berriro kalera irten dute herritarren iritzia jasotzeko aurrekontu parte hartzaileetarako

Martitzenean plaza ingurura irten eta prozesuko sustatzaileak 20 mañariarregaz egon ziren

MAÑARIA • J.D.

Mañariko aurrekontu parte hartzaileak azken fasean sartuta daude. Orain arte jasoriko ekarpenak lau multzotan ordenatu ditu udalak, eta aste honetan zehar multzo horietariko bat bozkatu daiteke, Interneten bitartez edo etxerik

etxe banaturiko eskuorriak beteta. Baina prozesua aurrera eramateko ardura duten Maraka taldekoek beste bide bat ere landu dute herritarrengana heltzeko: kalera irtetea. Martitzenean plaza inguruan egon ziren herritarrak informatzen eta iritzia jasotzen. Guztira, 20

mañariarregaz egon ziren eta eurentatik hamaikak botoa eman zuten. Gainerakoen artean, batzuek botoa emanda zeukaten ordurako, eta beste batzuek ez zuten parte hartu gura izan.

Martxoaren 22ra arte egongo da zabalik botoa emateko epealdia. Honako hauek dira aukeran dauden multzoak: herriko ondarea zaintzea (Eskuagatzeko presarako bidea garbitzea...), garraioa (autotaxia, ibilgailuak partekatzeko sistema...), segurtasuna (puntu beltzak aztertu eta argitzea...) eta eskaintza kulturala (udaberriko eta udazkeneko kontzertuak, asteburuko eskaintza...)



Maraka taldekoak eskuman, mañariar bategaz aurrekontu parte hartzaileei buruz berbetan.

Zelako jaiak gura dituzten galdetu diete izurtzarrei

Udalak herri batzar bat egin zuen martitzenean

IZURTZA • J.D.

Urte biko parentesiaren ondoren, irailean Izurtzako jaiak egingo dituzte berriro. Pandemia hasi zenetik honako aldi biak bertan behera utzi behar izan dituzte nahitaez. Normalean, jaiak presatzen hasi aurretik, udala herriko elkarrekin batzartzen da euren ekarpenak jasotzeko. Batzar hori martitzenean egin zuten, udal-terreko udalbatzar aretoan, baina

aurtengoak berezitasun bat izan du. Batzarra iragartzeko kartelak herrian zehar itsatsi dituzte eta herritar denei zabalik egon da. "Jendearen gustuak aldatu diren eta zeintzuk diren jakin gura dugu. Azken batean, urte biko parentesia izan dugu aurreko jaietatik hona. Ekarpene horiek jaietako ekitaldiak antolatzeke erabiliko ditugu", adierazi du Lorea Muñoz alkateak.

Kontzertuak eta berbaldia antolatu dituzte Otxandioko gaztetxean

Besteak beste, Alerta Gorria taldeak joko du zuzenean

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko Gazte Asanbladak hainbat ekintza antolatu du martxoaren 26ko zapatarako, Gaztetxean egiteko. 22:00etan, Alerta Gorria eta Libertad Condional taldeek zuzenekoak eskai-

niko dituzte. Ondoren, Aforrau DJak giroa du gaua. Sarrerak 20:00etatik aurrera egongo dira eskuragarri, 6 euroan. Lehenagorako, 17:00etarako, 'Euskara eta klase sozialak' izeneko berbaldia antolatuko dute.

A photograph of a woman with long blonde hair, smiling and looking down at a plate of food on a table. There are two wine glasses on the table, one with red wine and one with white wine. The background shows a large window with a view of a green landscape and a building. The text 'ERRESERBA EGIN ERRIOXAN' is overlaid on the image, along with a QR code and the text 'Informazio gehiago'.

ERRESERBA EGIN ERRIOXAN

Informazio gehiago

La Rioja
lariojaturismo.com

Mallabiko Trabakua gainean dagoen pasabidean hainbat pintada egin dute

Urtea hasi denetik hona pasabidean izandako "ekintza bandalikoak" salatu ditu udalak



Trabakuko pasabidean egin duten pintadetariko bat.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Azken hiru hileetan pintadak egin dituzte Trabakuko pasabidean. "Pasabidea instalatu zenetik, behin baino gehiagotan gertatu da hori", salatu dute udaleko ohar batean. Hori dela eta, Mallabiko Udalak altzari publikoen aurkako "ekintza bandaliko errepikakor hauek" salatu gura izan ditu. Igor Agirre alkateak azpimarratu duenez, "udalak garbituko ditu pintadak, eta mallabitar guztiei eragingo dien gastua izango da". Garbiketa lanak udal brigadak egingo ditu.

Pasabidea 2020ko irailean zabaldu zuten. Goitako, Gereako eta Longako auzotarrek herri batzar bateko bozketan erabaki zuten goiko pasabidea zela bidea gurutzatzeko modurik egokiena, eta udalak horren arabera egin zuen proiektua.

Politikan

Garazi Errasti
Silloniz
EH-Bildu



Ezkurdiko frontoia

Durango beti izan da pilota eta zesta punta kirolen erdigune, Jai Alai delakoaren bultzatzaile eta sehaska. Durango erdian, Ezkurdi parkean, dugun frontoiak eman dio kirol horri bere lekua.

Urte askoan, gaur egun Gernikan egiten den Torneo Jai Alai Winter Series bezalako lehia-keta eta torneoak egiten ziren, Euskal Herriko zesta punta eza-gutzero emanez eta kirolari bere garrantzia emanez. Gainera, ume eta gazteentzako pilotari lotutako modalitate ezberdinak ezagutu eta jokatzeko leku garrantzitsua da.

Baina frontoiaren egoera txarra dela eta, urteak igaro ahala, sasoi horietan ematen zitzaion erabilera eragina izan du eta bortizki gutxitu da. Teila-tuak dituen itoginak, eraikineraren sartzeko irisgarritasun arazoak eta eraikinaren mantenu ezaren ondorioz sortutako arazoak direla medio, lehen zuten erabilera eta mugimendua ezerezean geratu dira.

Honegatik guztiagatik, frontoia berritzeko proiektua jada esleitu da eta Bizkai-ko Diputazioak emandako 488.316,00 euroko diru-laguntza hartuz, hau konpontzeko beharrezko diren milioi batetik gorako euroak bideratu dira jada obretara.

EH Bildutik argi daukagu. Ezkurdiko frontoiak lehenagoko ospe eta erabilera berreskuratu behar ditu, Durangaldean estrategikoa izan behar da. Euskal Herriko hainbat tokitan jokatzeko den gure kirola herrian berpiztea ezinbestekoa da. Gernikarekin batera, Jai Alai munduan Durangok duen izena berreskuratu eta Durangoko neska-mutilek gureak diren kirolak ezagutu eta ikasteko aukera izatea ezinbestekotzat dauzkagu.

Durangaldea asteen

Auzitegi Nazionalak Gorka Palacios preso durangarra absolbitu du aste honetan

DURANGALDEA I Espainiako Auzitegi Nazionalak Gorka Palacios absolbitu du. Atxilotu bik torturapean jo zuten erruduntzat Palacios, eta, auzitegiak dekretatu duenez, deklarazio horiek ez dira kontuan hartu behar. Beraz, bere aurkako frogarik ez dagoela-eta errugabetzat jo du. Bestalde, azken egunotan jakinarazi dute Iñaki Reta Zaballako kartzelara lekualdatu dutela.

Durango, dagoeneko hasi dira San Inazioko jolas parkea berritzen

DURANGO I Durangoko Udala hasita dago San Inazioko jolas parkea berritzen. Lanek bost hilabete iraungo dute eta, aurreikuspenen arabera, parke berria uztaileko egongo da erabilgarri. Zurezko altzariak eraikitzeaz gainera, jolasgune berri bat ipiniko dute adin talde desberdinentzat.

Elorrioko Udala 2022ko Ferixa Nausikoak iragarriko dituen kartelaren bila dabil

ELORRIO I Elorrio 2022ko Ferixa Nausikoak iragarriko dituen kartelaren bila dabil. Urte biko etenaren ondoren, Elorrioko Udalak lehiaketa antolatu du irailaren 3tik 11ra ospatuko diren Ferixa Nausikoetarako kartela aukeratzeko. Parte hartu gura dutenek maiatzaren 27rako aurkeztu beharko dute euren lana.



Arrazolan artisau eta sortzaileen azoka egingo dute udaberriari ongietorria emateko

ATXONDO I Udaberriari ongietorria emateko asmoz, Arrazolan azoka antolatu dute martxoaren 19rako, zapatua. 10:30etik 15:00ak bitartean, hainbat sortzaile eta artisauk euren postuak ipiniko dituzte Amillena Arrazolako Bentaren bueltan. Hauek izango dira parte hartuko duten artisau eta sortzaileak: Amalur, Hasi ta Hazi, Gorakat, Iraia Okina, Birak, Agtz printak, Kenika, Artizar, Kukupraka eta Maimai, Irati Bazeta eta Tartalo.

Antolatzaileek azaldu dutenez, azoka dela-eta zapatuan autobusa ez da Arrazolako plazaraino igoko. Beheko geltokian geratuko da.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA
Eider Rodriguez (Susa)

DENA AMETSA DEN IRUDIPENA
Leire Vargas (Elkar)

IZURDEEN AURREKO BIZITZA
Kirmen Uribe (Susa)

Eskera WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92





ZER EZ?

Zer ez zenuke topatuko gimnasio batean?







DIFERENTZIAK

Topatu 7 diferentziak




TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu beheko
pisu hauek txikitik
handira.




ITZALAK

Zein itzal dagokio
ondoko irudiari?



DOMINOA





‘Poliedro Vol. I’

MUSIKA **ELORRIO :: Martxoak 18**

Triggerrek 'Poliedro Vol.I' lana aurkeztuko du gaur Arriola antzokian

Eñaut Zubizarreta Mendietaren (1992, Leintz) musika proposa-mena ezagutzeko aukera egongo da Arriola antzokian, gaur, 19:00etan. Txeloaren ikasketa klasikoak egindakoa da Zubizarreta, goi mailako gradua egin zuen interpretazio klasikoan, eta orain urte batzuk rock doinue-tatik eratorritako musika lan-tzen hasi zen, Trigger izenpean. Elektrifikatutako txeloagaz eta

gitarren pedalekin hizkuntza berri bat sortu gura du, bukle eta efektuek lagunduta.

Poliedro Vol.I lana aurkeztuko du Arriolan. Biolontxelo, musi-ka klasikoari hertsiki lotuta da-goien instrumentu hau, bestela-ko esparru batzuetara eramanez, hardcorea, post-rocka, stonerra, flamenco edota technoa entzun ahal izango dira, besteak beste, beti biolontxelo ardatz izanda.

Martxoaren 18an

DURANGO bertso saioa
Iruri Basagoiti, Ander Sarriugarte eta Oneka Etxegibel. Errigorako olio dastaketa. 19:00etan Ibaizabal ikastolako tabernan.

IURRETA musika
‘Oraindik eta oraingoz’ poesia eta musika emanaldia. Jon Basaguren eta Iñigo Astiz, 19:00etan, lurretako herri bibliotekan.

ELORRIO musika
Trigger. 20:00etan, Arriolan.

BERRIZ musika
Mausoleo eta Aihotz, 22:00etan, Hilegixe gaztetxean. Sarrera 5 euro.

Martxoak 19

ELORRIO irteera Mendi lagun
Elorrioko ermitak (2. zatia). Irteera: 09:00etan Elorrioko plazan. 4 ordu inguruko ibilaldia. Berbalagunek Erdella mendizale taldeagaz batera antolatuta. Parte hartzea dohainik da. Antolakuntza egokirako izena eman behar da: 639400786.

ZORNOTZA ipuin kontaketa 'Arrosa eta leuna'. Maite Franko ipuin kontalaria. 12:00etan Zonotzako udal liburutegian.

ZORNOTZA ikuskizuna
'Erdi Aroko ipuin magikoa' magia ikuskizuna Oliver magoagaz, 17:30ean, Zornotza Aretoan.

BERRIZ musika
Niña Coyote eta Chico Tornadoren kontzertua, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

Martxoak 20

ELORRIO musika
‘Zintzilik’ jazza familian, 17:00etan, Arriola antzokian.

DURANGO antzerkia
'Narziso' Borobil antzerki taldea, 18:00etan, San Agustin kultur gunean.

Martxoak 23

BERRIZ zinea
Zinegoak Bilbao LGTB Film Festival, 18:30ean, Berrizko Kultur Etxean.

Martxoak 24

ZALDIBAR zinea
Menditour. 'Amagana', 'Free in the fingers' eta 'The Traverse' filmak, 18:30ean, Zaldibarko liburutegi zaharrean.

DURANGO dantza
'LOF ladies on fight' ikuskizuna Eva Guerrero konpainia, 19:00etan, San Agustin kultur gunean.

Martxoak 25

BERRIZ antzerkia
‘Tempus’ El que ma quedá de Teatre konpainia, 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO tertulia
‘Tertulia saltseroa: Salley Rooneyren Jende Normala’ 18:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

ELORRIO antzerkia
‘Yerma’ La Dramática Errante konpainia, 20:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA dantza
‘L.O.F. Of Ladies’ dantza ikuskizuna Eva Guerrero konpainiaren eskutik, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 31ra arte

DURANGO erakusketa
Tupust erakusketa Arteka liburu dendan.

ELORRIO erakusketa
‘Lanigredo’ Larraitx Loizate Etxarteren argazkiak, Iturri kultur etxean. Noctis Photobookesegaz lankidetzan sorturiko lana.

ZORNOTZA erakusketa
'No soy flor de tu florero' Alejandra Buenoren argazki eta bideo erakusketa Zelaieta zentroan.

Apirilaren 23ra arte

DURANGO Erakusketa
Goyaren, Haesen eta Fortuny-ren grabatuen erakusketa Arte eta Historia Museon.

Eguaztenetan

IURRETA jaiak
lurretako Jai Batzordea batzarrak egiten hasiko da lurretako plazan eguaztenetan 20:00etan.

Zinema

:: Abadiño
ERROTA KULTUR ETXEA

• **El Sastre**
zapatua 19: 19:00

• **Ainbo, Amazoniako gerraria**
domeka 20: 17:00

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• **La escuela de animales mágicos**
barikua 18: 17:00
domeka 20: 17:00

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• **Código emperador**
barikua 18: 19:30
zapatua 19: 18:00/19:30
domeka 20: 18:00/19:30
astelehena 21: 18:00/20:15
martitzena 22: 18:00/20:15
eguzatena 23: 19:00
eguen 24: 19:00

• **Los tipos malos**
barikua 18: 18:30
zapatua 19: 17:00/18:00
domeka 20: 17:00/18:00
astelehena 21: 18:00
martitzena 22: 18:00
eguzatena 23: 19:00

• **El engaño**
barikua 18: 20:30
zapatua 19: 20:00
domeka 20: 20:00
astelehena 21: 20:15
martitzena 22: 20:15

• **La última película**
barikua 18: 19:30
zapatua 19: 20:00
domeka 20: 20:00
astelehena 21: 18:00/20:15
martitzena 22: 18:00/20:15
eguen 24: 19:00

• **Rusalka (opera)**
eguzatena 23: 19:00etan

• **A tiempo completo**
eguen 24: 19:00

:: Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Colmena (Hive)**
zapatua 19: 20:00
domeka 20: 20:00
astelehena 21: 20:00

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• **Tipularen sehaska kanta**
barikua 18: 20:00

• **El triunfo**
domeka 20: 20:00
astelehena 21: 20:15

• **Ainbo, Amazoniako gerraria**
domeka 20: 17:00

• **¿Qué hicimos mal?**
martitzena 22: 20:15

“Heriotzaz gutxi hitz egiten dela esan ohi da; normala da, bestela bizitza oso zaila da”

Durango bizi den Andoni Urzelai bere ibilbideko bosgarren liburua kaleratu du, 'Ametsen trafikatzalea', Elkarregaz



**Andoni
Urzelai Eraña**

Idazlea

ARETXABALETA | 1967

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Durango bizi den Andoni Urzelai idazle aretxabaletarrak bere bosgarren nobela publikatu du oraintsu: 'Ametsen trafikatzalea'. Elkar argitaletxeagaz publikatu du eleberria, urte biko lanaren ondoren. Andoni Etxanoz psikiatra “makur eta handinahia” da nobelako protagonista; ametsak errealak balira lez gogoratzen laguntzen duen droga asmatu du, eta horregaz munduan bere aztarna uzteko helburuagaz jarraituko du lanean. Irakurleen feedbacka jasotzeko irrikan dago orain Urzelai.

Zeri buruzkoa da 'Ametsen trafikatzalea'?

Liburuaren premisa sinplea da: hilezkortasuna amets duen Andoni Etxanoz psikiatra makur eta handinahia ametsak errealak balira lez gogoratzen laguntzen duen droga bat sortu du. Horrek inpaktu itzela du gizartean, herritarrek bezperan amesturikoa berregiten ematen dute eta bihamuna. Ger-

takari horren harira doa eraikitzen trama osoa. Edozelan ere, nobela honetan gauzak ez dira ematen dutena, delirioaren azpimunduan gertatzen da eta guztia. Andonik jaiotzatik uste du gauza handiak egiteko jaio dela, eta munduan bere aztarna uztea du helburu. Baina nobelak hainbat interpretazio du eta hau azalekoena da. Hain zuzen ere, horregaitik nago gogotsu irakurleen feedback horiek jasotzeko.

Eleberriak hiru zati nagusi ditu eta bakoitza kapitulu laburretan egituratuta dago. Nobela, bere horretan, fabula hiperboliko bat da, fantasia bat, eta iruditu zitzaidan egitura hori oso ondo zetorkiola kontakizunari. Nire kezka nagusietariko bat sinesgarritasunari eustea zen, izan ere, kontatzen dena oso muturrekoa da.

Gizartea ikusteko modu bat agertzen dela diozu, ez kritika modura.

Protagonista tipo amoral bat da. Ez du ezelango moralik, ez du ongia edo gaizkia desberdintzen, anke-

rra da, anbizioz betea. Irakurleen artean, hori existitzen ez dela uste duenik egon daiteke, baina egon, badaude. Ez da gaur egungo gizarteari kritika bat, gizartearen argazki bat erakutsi gura izan dut.

Istoriak interpretazio desberdinak izan ditzake; irrikan nago irakurlearen feedbacka jasotzeko

Bere helburuak guztiaren gainetik daudela uste du, eta horregaitik barrabaskeria guztiak justifikatzen ditu. Edozer egiteko gai da, inolako damurik eduki barik. Tipoa ankerra da, baina enpatia daukat berekiko, neurri batean guztiok dugulako nahi eta ezin hori. Andonik bere aztarna utzi gura du munduan, eta neurri batean lortzen du

droga hori sortuta; baina bizitzak, apurka, bera jango du gero. Hori ere oso ohikoa da gizartean, eta ez da erraza konturatzea bizitzak bere lekuan ipintzen zaituela.

Horri lotuta, ametsetan bizi gara?

Errealitatea, bakoitzari egokitzen zaiguna, hain da sarri aldatz gorrakoa non ameskerian gotortzeko joera daukagun. Izan gaitezkeenaren peskizan bizi gara, benetan garena ahaztuz. Logikoa da hori hein batean, baina arrisku hori du: bizi dugun esistentzia-errealak gutxiestea. Sistemak, hazi eta hazi egin behar duenez, ez garen hori izan gaitezkeela sinetsarazi nahi digu uneoro. “No tenemos sueños baratos” zioen loteriaren iragarki ofizial negargarri batek: kontzeptu horretan laburbiltzen da dena. Baina hori guztia baino gehiago, bizitzaren “arrazionaltasuna” kritikatzeko nobelaren demencia liburuan ere egin nuen horrelako keinu existentzialista bat. Bizitzaren logika zaila da ulertzen. Jaio

eta hil egiten gara eta egitate hori zaila da onartzen. Sarri aipatzen da gutxi hitz egiten dela heriotzari buruz. Normala iruditzen zait, ostantzean, erotu egingo ginatke. Jaiotzen garenetik hiltzen hasten gara eta hori asumitzea oso zaila da. Horregaitik gura du Jon Andonik ere bere aztarna utzi, patuaren logika makurra hautsi eta egokitu zaion bizitza erreal hori traspasatzeko.

Nobela bera orain denbora bat amaitu zenuen idazten, ezta?

Bai, nik beti diot nobela bat amaitzerakoan hasten dela lanik gaxena. Baina ez literaturan bakarrik. Sortzaileen lanik gehienetan berdina gertatzen da. Sortzea gozamina da, baina egindako hori saldu egin behar duzu gero, eta hor hasten da benetako odisea. Sortzaile asko gaude; asko publikatzen da, baina sortu, askoz ere gehiago sortzen da. Eta argitaletxeetan muturra sartzea ez da erraza. Nire ustetan, arazo bi daude: alde batetik, asko sortzen da eta ez dago merkaturik idazle guztiontzat; bestetik, argitaletxeek aurreikuspen handiagaz lan egiten dute.

Nik oso modu konpultsiboan idazten dut, ezingo nuke lan egin eta idatzi batera egin. Idazterakoan, eguneko ordu denak eskaintzen dizkiot

Zelan eragiten dizu horrek sorkuntzan?

Nik oso modu konpultsiboan idazten dut, ezingo nituzke gauza biak batera egin, lan egin eta idatzi. Idazten dudanean eguneko ordu denak eskaintzen dizkiot horri. Urte eta erdi eguneroko lan bihurtzen dut idaztea, eta hor oso gustura nago, nire munduan. Idaztea kirola egitearen parekoa dela iruditzen zait, egunero eginez gero, makineria engrasaturik dago; bestela, gatxagoa egiten da. Horregaitik, nobela hasi eta amaitu segidan egiten dut.

Baduzu beste proiekturik buruan?

Esan dudana moduan, laneko parentesietan idazten dut. Orain, nobela proiektu bat dut esku artean; beka batera aurkeztu dut eta hurrengo parentesi hori baliatuko nuke idazteko. Baina oraingoz ez, ez nabil ezer idazten. Nire nobelen kasuan, oso azkar sartzen naiz bertan; behin hasita, hasi eta amaitu egin behar dut. Beka gutxi dago, baina emanez gero, hasi eta amaitu egiten dut. Ez zait beste lan baten ere gertatu, iratzargailurik barik goizean goiz itzartu, kafe bizkor bat hartu eta idazten hastea, daukadan dena botatzea eta forma ematea.

Niña Coyotek eta Chico Tornadok doinu indartsuz beteriko lan berria aurkeztuko dute Berrizen

Rock doinu pisutsuagoak dituen lana aurkeztu du bikoteak; zapatuan izango da emanaldia, 19:00etan, Kultur Etxean

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Niña Coyote eta Chico Tornado bikote donostiarra bere azken lana aurkeztera dator Berrizera: *Niña Coyote eta Chico Tornado vs Don Condor eta Ñora Alacran*. Dis-ko berriak zati oso desberdin bi ditu. Alde batetik, ohiko riff eta bateria erritmo indartsuz beteri-

ko doinuak batzen dituen zazpi abesti daude; bestetik, diskoaren B aldean Koldo Soret eta Ursula Strong musikarien alter egoak dira protagonistak, Don Condor eta Ñora Alacran. Distortsioa eta efektuak alde batera utzi, eta akordeoia, perkusioa, eta baxu doinuek hartzen dute hor

protagonismoa; esperimentazio-rako tarte hartu dute diskoaren zati horretan. Mexikoko doinuak dituzte desert-cumbia-surf etike-tapean bataiatu dituzten abesti berriek. Harkaitz Cano idazleak eta Maialen Lujanbio bertsola-riak letra bana idatzi dute.

Bira hasiberria

Niña Coyote eta Chico Tornado sasoiko helduko dira Berrizera, izan ere, azken egunetan hiru kontzertu eskaini dituzte The Baboon Show suediarrekin ba-tera. Bilbon, Bartzelonan eta Madrilén. Zapatuan, Logroñon (Errioxa) eskainiko dute kontzertua. Berrizko kontzertua 19:00etan hasiko da; sarrerak sei euroan salduko dituzte. Orain-goz, rock doinuak gailenduko dira kontzertuetan.



Iñigo Astiz eta Jon Basaguren.

Sorkuntza aztertuz, poesiaren eta musikaren bitartez

Iñigo Astizen eta Jon Basagurenen emanaldiak orainari buruzko hausnarketa sustatu gura du

POESIA • ARITZ MALDONADO

Iñigo Astiz idazle eta kazetariak eta Jon Basaguren musikariak indarrak batu dituzte orainari eta sorkuntzari buruzko hausnarketa bat egin eta publikoagaz parte-katzeko. Hori bakarrik ez, euren azken liburu eta diskoetako abesti eta poemak ere eskaintzen dituzte 'Oraindik, orain eta oraingoz' ikuskizunaren emanaldietan; ikuskizunerako propio sorturiko piezak ere erakusten dituzte. Hain zuzen ere, Poesiaren Nazioarteko Eguna izango da martxoaren 21ean, eta horren barruan anto-latu dute emanaldi berezi hau.

Ikuskizuna 19:00etan hasiko da eta doakoa da.

Ibilbide propiodunak

Jon Basaguren musikaren mun-duan egin duen ibilbidea oparoa da. 2012an Izaki Gardenak taldea sortu zuen eta dozenaka kon-tzertu eskaini ditu ordutik hona; taldeak hiru disko kaleratu ditu. Iñigo Astizek hainbat liburu kale-ratu du, poesia batez ere. 2020an Euskadi Literatura Saria jaso zuen *Joemak eta Polasak* liburuagaitik. Urtebete lehenago, Lauaxeta Saria jaso zuen *Analfabetoa* poema bildu-magaitik.



Ursula Strong eta Koldo Soret.

Gai librean

Pilatzen dira gerrak

Bat, bi, hirurehun. Bost, sei, zortziehun. Zortzi, bederatzi, ehun. Mila. Ehun mila-tik gora. Milioi batzuk. Gora eta gorantz. Pilatzen, armairu hondoko arropa mul-tzoak bezala, erabiltzen ez den gelako hautsak egiten duen bolaren antzera. Pilatzen, itsas hondoa, itsas hondarrak bailiran. Hondatuta baleude bezala, jo-koz eta lekuz kanpo. Legez eta eskubidez kanpo.

Gaur Ukraina da, baina atzo Sahara zen, Siria, Afganistan... Gaur Ukraina ere da, baina atzokoak ez dira konpondu, ez dira amaitu, ez dira erdietsi. Kurio-soa erdietsi, beste erdia eusten egongo ote da? Atzokoak pilatu egiten dira eta gaurkoekin batu. Gehitu, gehi hitzaren zentzurik zentzugabekoenan. Pilatzen dira zenbakiak, zerrendak, ilarak, al-bisteak eta izenak. Pilatzen zen jendea, borobil, lerro zuzen, multzo eta karra-



Eider Chaves Gallastegui
Irakaslea

Pilatzen dira itxaronaldiak. Itxaron, irteteko. Itxaron, sartzeko. Itxaron, jateko, lo egiteko eta arnasa hartzeko

Gaur Ukraina ere da, baina atzokoak ez dira konpondu, ez dira amaitu, ez dira erdietsi

tuetan, eta pilatzen dira gaur ere forma antzekoetan.

Pilatzen da amorrua, amorru gosea, amorruaren beldurra, beldurraren amorrua, larrua eta barrua; pilatzen dira pausoak, bata bestearen atzetik doazen oin hutsak, oinutsik doazenak. Pilatzen dira galderak, eta galerak. Banderak eta bandoak. Gerrak pilatzen dira. Hotzera, hiltzera, erbestera, galtzera, ahaztera doazenak. Ahaztera eta hastera. Hastera eta haztera, behartuta bada ere.

Pilatzen dira itxaronaldiak. Itxaron, irteteko. Itxaron, sartzeko. Itxaron, jateko, lo egiteko eta arnasa hartzeko. Itxaron, hiltzeko. Eta itxaron bitartean, jarraitu itxaroten. Pilatzen da metala, azalean, azal barruko ehunetan, ehun azaletan, lurzoruko hare eta harri ar-tean; bihotzetan ere pilatzen da metala. Pilatzen dira aginduak eta agintariak, agindu gosea eta agintariekin uzten duten gosetea. Pilatzen dira hizkuntzak, mu-getan, begiradetan, ibilbideetan. Elkar nahasten diren edo elkarri hitz egiten dioten ezin jakin.

Zein alderdi politikok hasi duen ge-rra, eskuinean, ezkerrean edo erdian da-goan, erradikalagoa edo moderatuagoa den...Gerrak agian bulegoetan hasten dira, baina kalean jasaten dira. Eta ka-lean daudenek hotza gorputzeko parte guztietan sentitzen dute, ezkerrean, erdian eta eskuinean. Hotza ez dute agin-tariekin sentitzen.



Eider Garcia Fuentes

Eibar Rugby Taldeko jokalaria

BERRIZ | 2005

“Debutak epe luzeagora begirako erronkak ziren, baina orain ari zaizkit errealitate bihurtzen”

17 urteaz, Eider Garcia errugbiaren Ohorezko Mailan jokatzeko dabil eta Espainiako selekzioagaz debutatu du nagusietan

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Durango Rugby Taldean hezitako jokalaria oso arin egin du gorako bidea. Iaztik Eibar Rugby Taldean dabil eta otsailen nagusiekin debutatu zuen. Berrizarraren maila Espainiako selekzioan ere ez da oharkabea pasatu eta maila absolutuan jokatzeko aukera izan du dagoeneko.

Urtebetean sekulako aldaketa izan da zure bizitzan.

Bai, horrela da. Zazpi urte nituenetik iazko martxora arte, Durango Rugby Taldean aritu nintzen, gazte mailetan. 16 urte nituela, Eibar Rugby Taldera batu nintzen eta harrezkero etorri da beste dena

Eibar errugbiko mailarik gorenean dabil. Jauzi handi hori hain gazterik emateak ez zizun bertigorik eman?

Bertigo handia ematen du, bai. Baina denok gura dugu horrelako aukera bat, jokari lez pauso bat aurrera ematea dakarrelako, eta aprobeztatu egin nuen. Dena dela, klubeko bigarren taldeagaz jokatzeko ideiaz joan nintzen eta ez nuen pentsatzen talde nagusiagaz hain lasterrera jokatzeko hasiko nintzenik. Bestalde, Durango Rugby Taldea uzteak pena eman zidan. Hainbeste urte elkarrengaz... niretzat lagunak baino

gehiago ziren, familia bat ginen.

Beraz, itxaroten zenuen baino lehenago heldu zen debuta.

Bai, ez nuen espero. Olimpiko taldearen kontra debutatu nuen, otsailaren 13an. Partidu osoa jokatu nuen. Taldekideek gogo handia zuten ni jokatzeko ikusteko, ordura arte ez nindutelako ikusi partidu batean, entrenamenduetan bakarrik. Urduri egon nintzen eta asko lagundu zidaten. **Zeintzuk dira Eibarren helburuak liga amaierara bitartean?**

Bosgarren gaude eta partidu bi falta dira. Gure helburua lau onenen artean geratzea da, ligako finalerdietara sailkatzeko.

Euskadiko selekzioagaz ere jokatu duzu, baina beheko mailetan.

Bai, 16 urtez azpiko taldean. Iazko ekainean izan zen, Gijonen. Espainiako txapelketa jokatu nuen, baina ez hamabosteko taldean, zazpiko errugbian baino. Oso esperientzia polita izan zen, bai zelai barruan bai handik kanpora.

Zelan jakin zenuen Espainiako selekzioa nagusiekin hautatu zintuztela?

Durango Institutuan ikasten dut eta deialdia ateratu zutenean han nengoen. Gurasoei mezu bat bidaltzea izan zen egin nuen lehenengo gauza. Hau ere ez nuen

Oraindino apur bat barneratzea falta zait, baina banabil apurka. Beti gura izan dudana gauza bat da. Oso serio hartzen dut eta egunero gogor lan egiten dut

Igartzen dut taldekideak eta ni ez gaudela maila berean. Baina zortea dut, urte asko dut aurretik eta gauzak patxadaz hartzen ahalegintzen naiz

espero. Egia esanda, debutak epe luzeagora begirako erronkak ziren, baina orain ari zaizkit errealitate bihurtzen.

Zelako esperientzia izan zen?

Oso polita. Mónica Castelogaz partekatu nuen logela. Berak esperientzia du eta lasaitasun puntu hori eman zidan. Partidua Kolonbiaren kontra jokatu genuen. Nik azkenengo 15 minutuetan jokatu nuen. Oso urduri nengoen eta hobeto egin nezakeela uste dut, baina tira, kontuan hartu behar da Eibarregaz debutatu barik nengoela oraindino, esperientzia handiko jokalaria nituela aurrean...

Ohorezko Maila, Euskadiko selekzioa, Espainiako selekzioa... Izan duzu astirik lortzen zabiltzana barneratzeko?

Oraindino apur bat gehiago barneratzea falta zaidala uste dut, baina banabil apurka. Beti gura izan dudana gauza bat da. Oso serio hartzen dut eta egunero gogor lan egiten dut.

Hain gaztea izanda, zein da Ohorezko Mailan jokatzeko alderdirik gaxena?

Igartzen dut taldekideak eta ni ez gaudela maila berean. Askotik ikasteko eta badakit akatsak egiten ditudana. Baina zortea dut, urte asko dut aurretik eta gauzak patxadaz hartzen ahalegintzen naiz. Gainera, hartu-eman ona dut taldekideekin eta asko laguntzen didate.

Zegaz zabiltza gehien gozatzen?

Denagaz. Baina lagunekin bi-daiatzea eta lagun berriak egitea gustatzen zait batez ere.

Nondik datorkizu afizioa?

Aitak errugbian jokatu zuen. Aprobata egitera eraman ninduten eta harrezkero ez dut utzi. Aita ermuarra da eta Eibarren jokatu zuen. Eta orain neuk jokatzeko dabil han. Berak eramaten nau alde guztietara eta asko eskertzen diot.



Eider Garcia Eibar Rugby Taldeko partidu batean.

Garaikur bat baino gehiago izan da; Zornotza Saskibaloitza Taldearen kopako garaipenak zaleak taldeagaz berriro lotzeko balio izan zuen

Klubeko arduradunak kezkatuta zeuden zaleek kiroldegira joateko ohitura galdu zutela-eta pandemia sasoian. Bada, joan zen asteburuko finalean zaleek lepo bete zuten kiroldegia: etengabe animatu zuten eta taldearen hauspoa izan ziren ahulaldietan

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Zilarrezko Lehen Kopako finala Hollywoodeko gidoirik onenaren parekoa izan zen. Trama hoberik ezin zitekeen asmatu Zornotzaren intereserako. Denak galduta zirudienean, taldea suspertu egin zen, partiduari buelta eman zion, eta,

azken segundora arte sufritu ostean, klubaren historiako lehenengo garaikurra lortzea ospatu zuen zaleekin. Teknei Zornotzak 66-64 menderatu zuen Ibiza taldea Larrea kiroldegian.

Baina, beharbada, kantxan gertatu zena baino garrantzi-


tsuagoa da harmailetan bizi izan zena. Sasoirik onenetako giroa bizi izan zen Zornotzan. Larrean baturiko 700 zaleak taldearen hauspoa izan ziren 11 puntu azpitik zihoazenean, eta zutunik bizi izan zituzten partiduko azken minutuak; sobera zeuden aul-

kiak. Partiduaren amaieran, Mikel Garitaonandia entrenatzaileak eskerrak eman zizkien zaleei, eta ez zen gutxiagorako. Taldeak eta zaleek pandemia sasoian apur bat etendako konexioa berreskuratu zuten finalean, eta ikusi egin beharko da denboran irauten duen. Izan ere, Teknei Zornotzak oraindino asko du jokoa Zilarrezko Ligan. Bost jardunaldiren faltan, bigarren tokian sailkatuta daude mendebaldeko multzoan, eta badute aukera igoera fasea jokatzeko.

Cabreren erakustaldia

Kopako garaipena talde lanaren ondorioa izan zen, baina Alberto Cabreren erakustaldia azpimarratu beharra dago. Finaleko jokalaririk onenaren garaikurra jaso zuen, merezimendu osoz. 23 urteko joko antolatzaile tenerifarrak hamalau puntu sartu, zortzi errebote jaso eta sei asistentzia banatu zituen. Denerik egin zuen eta ia dena ondo.

Cabrera Tenerife taldeak utzita dabil Zornotzan. 2015ean, 16 urtegar, ACB Ligan debutatzen zuen hirugarren jokalaririk gazteena bihurtu zen. Gero, EBA mailan aritu izan da. 2020-2021 denboraldian heldu zen Zornotzara, eta bigarren denboraldia du aurtengoa.



Aimar Galdosek lehenengo garaipena eman dio eskualdeko talde berriari

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Durungaldeko Bizikleta Eskolaren proiektu berria den Cafés Dromedario Flotamet taldea bere fruituak ematen hasi da. Joan zen asteburuan, denboraldia hasi berritan, Aimar Galdos ermuarrak lehenengo garaipena eman zion taldeari. Gazte mailako XXXVII. Atxukale Saria irabazi zuen, Mutrikun. Galdos eta Mikel Arrasate taldekidea 12 lagunekin ihesaldiko parte izan ziren. Helmugara bakarrik heltzeko saiakera asko egon ziren arren, azkenean esprintean erabaki zen garaipena eta Galdos izan zen indartsuena. Bera izan zen esprintari ekin zion lehenengoa, eta, helmugarako metro dezente falta ziren arren, inork ere ezin izan zuen gainditu.



Teknei Zornotza Taldeko jokalariek garaikurrarekin finalaren amaieran.

Jokaldia

24 urteren ostean, Munduko Kopara

24 urte itxaron behar izan dute Munduko Kopan berriz aritzeko. Aurreko igandean Portugal mendean hartu ondoren, Espainiako gizonezkoen errugbi selekzioak txartela lortu zuen datorren urtean Frantzia jokatu den Errugbi Mundu Koparako. Lehoien XVak agerraldi bakarra izan du Munduko Kopa batean, 1999. urtean hain zuzen ere, Walesen jokatuak txapelketan.

Urte horretako edizioan, jokatuak hiru partidak galdu zituen Espainiak, Uruguaiaren (27-15), Hegoafrikaren (47-3) eta Eskoziaren (48-0) aurka. Bertan jokari euskaldun ugari aritu ziren, besteak beste, Oscar Astarloa elorriarra, Aratz Gallastegi, Fran Puertas eta Aitor Etxeberria. Bide malkartsua izan da lehoien, ibilbidean harri koskor ugari izan dituzte. Gogoratzea besterik ez hasierako



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

Espainiako gizonen selekzioak txartela lortu zuen datorren urtean Frantzia jokatu den Munduko Koparako

Munduko Kopan parte hartzeak onura handiak ekar ditzake, agintariak ondo kudeatzeko gai badira

hiru partidetan 2021. urteko martxoan Georgia, Errumania eta Portugalen elkarren segidako hiru porrot kateatu ondoren, inork gutxi espero zuen sailkapena. Baina ordutik hona 6 garaipen lortu dituzte, bata bestearen atzetik, eta horrekin Munduko Koparako saria eskuratu dute.

Aurten ere, emakumezkoen taldeak Europako Txapelketa irabazi du, 9. aldiz.

Otsailaren 22an jokatuak norgehiagokan, Jose Antonio Barriok zuzentzen duen taldeak aise irabazi zuen Errusiaren aurka, azken emaitza oso esanguratsua da 27-0.

Txapelketa honek eta Munduko Kopan parte hartzeak onura handiak ekar ditzake, errugbi agintariak ondo kudeatzeko gai badira. Hau da, ikusgarritasunak, komunikabideetan agertzeak zale eta praktikatzaileen kopurua igo dezake esponentzialki, eta horrek ekar dezake errugbiaren hedapena. Azken urteetan fitxa zenbakietan gorakada nabarmena egon den arren, gizonetan zein emakumeetan, selekzioek ez dute aupadatxo hori lortu eta ez dira onenen artean sartu. Munduko Koparen hitzordura arte urtebete pasatxo geratzen zaigu, eta tempus horren kudeaketa egokiak ekar dezake errugbizale guztiok espero dugun eztanda.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

// ERAIKUNTZA BERRIA

IURRETA: Promozio berria. Udaletxe ondoan. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. 2 komun. Terraza. Trastelekua eta garajea. Kalitatezko materialak. **C.E.E=A 230.000-TIK HASITA.**

// AUKERA

ZALDIBAR: Bilbao etorbidea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Eguzkitsua. Hegoaldea. **C.E.E=F 118.000 €**

IURRETA: Dantzari. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. C.E.E= F. **140.000€ NEGOZIAGARRIA.**

DURANGO. 2 logela, (lehen 3), komuna, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara. Berriztatua. **C.E.E: E. 145.000 €**

DURANGO: Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **C.E.E=F 130.000 €.**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

F.J.DE ZUMARRAGA: Erdialdean. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela-jangela. Terraza. **C.E.E=E 195.000 €**

ASTARLOA (JESUITAK): 100 m². 3 logela, komuna eta sukaldea. Terraza. Ganbara. **C.E.E=E 160.000 €**

IURRETA: Maspe. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. C.E.E=F garajea aukeran. **180.000 €**

ABADIÑO: Etxebizitza. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela, eta egongela. Terraza. Lokal komertziala. Garajea. Apartaleku pribatua. Txokoa. 300 m²-ko lorategia. Lanabesentzako txabola. **390.000 €.**

LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garajea. **C.E.E=F 258.000 €.**

ABADIÑO: Zeletabe. 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. C.E.E=F ALOKAIRUAN, EROSTEKO AUKEGAGAZ **600 € / 180.000 €.**

DURANGO. Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza handia. Garajea. **C.E.E= E. 281.600 €**

ZALDIBAR: Fueros kalea. 114m². Altua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Aire girotua. 2 kotxerentzako garaje itxia. 42 m²-ko ganbara. Etxebizitzarekin bat egiteko aukera. Txokoa, estudioa. **CEE=F 252.000 €**

MATIENA: 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta despentsa. Terraza. Igogailua. **C.E.E=F 149.000 €**

MADALENA: 132m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara. Garajea eta bodega-trastelekua. **C.E.E=F 286.000 €**

EZKURDI: 175 m². 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E=F 325.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 179.500 €.**

SANTA ANA: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Berogailua. Leiho berriak. Ganbara. **C.E.E=E 125.000 €**

MATIENA: Erezena. 3 logela, komuna, sukalde-egongela eta despentsa. Terraza. Ganbara. Igogailua. **C.E.E=E 155.500 €**

MATIENA: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. **CEE=G.120.000 €**

IURRETA: Santa Maña. 3 logela, komunak, egongela eta sukaldea. 15 m²-ko trastelekua. Parking pribatua. **C.E.E=F 160.000 €**

IURRETA: Bixente Kapanaga. 92 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. **C.E.E=G 205.000 €**

ZALDIBAR: Euskal Herria. 2 logela, 2 komun sukaldea eta egongela. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 198.000 €**

ZALDIBAR: 95 m². 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Garajea. **C.E.E=F 206.000 €**



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: San Fausto. 3 logela. Guztiz berriztatua. Bizitzera sartzeko moduan. **128.000 €.**

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ: Andikona auzoa. Baseri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baseri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baseri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria **ATXONDO:** ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL

INDUSTRIALA ALOKAIRUAN


BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 62 m²
4 logela
JUAN DE IZIAR: Egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ekialdea/ mendebaldea/iparralde). Etxebizitza altua. Argitsua. Ikuspegi ederrak. Berdeguneetatik gertu, eta herriko sarrera/irteera bat ere hurbil dago. Eraberritze integrala/Aukera asko. ITE oraintsu pasatutakoa.
99.000 € C.E.E: E



DURANGO 71,95 m²
3 logela
MARTXOAREN 8KO: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta eskegitokia. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (iparhegoaldea). Etxebizitza altua. Argitsua. Ikuspegi ederrak. Berdeguneetatik gertu, eta herriko sarrera/irteera bat ere hurbil dago. 6 m²-ko trastelekua. 11,47 m²-ko garajea. EZIN HOBEA.
C.E.E:D. 249.000 €



ELORRIO 402,02 m²
ERREKA KALEA: Eraikina eraberritzeko (osoa) 402,02 m² erabilgarri, honela banatuta: etxabea, bi lokal; etxebizitzako 1. solairuan 105,43 m² erabilgarri; etxebizitzako 2. solairuan 102,88 m² erabilgarri; etxabea 107,66 m² erabilgarri.
Kontsultatu



IURRETA 70 m²
3 logela
ZUBIAURRE: 70 m² + 43 m²-ko terraza. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta despentsa. Etxe erdiak kanpora ematen du. (ekialdea) Leku onean kokatuta. Hobekuntza batzuk behar ditu.
173.000 € C.E.E: F



DURANGO 85 m²
3 logela
ASTEPE: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hego-mendebaldea). Leku onean kokatuta. Garajea eta 6 m²-ko trastelekua. Argitsua. Ikuspegiak.
249.000 € C.E.E: Bidean



MATIENA 58 m²
3 logela
TRANAETXOSTE: Egongela, sukalde jantzia (berriztatua), 3 logela eta komuna (berriztatua) eta despentsa. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (Ekialdea) Leku onean kokatuta. Apartalekuak. 4 m²-ko ganbara. ITE oraintsu pasatutakoa. Bizitzera sartzeko moduan.
C.E.E:E. 124.000 €



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//DURANGO

ALLUITZ KALEA: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Igogailua. **220.000 € / E.E.Z=F**

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 250.000 € / E.E.Z=F**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

//ABADIÑO

ALFREDO BAESCHLIN: Etxebizitza eraikitzeke lursaila. **180.000 €.**

//BERRIZ

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeke baserria lurzorugaz. **290.000 €**

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

GONBILAZ AUZOA: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

//ZALDIBAR

MIREN MAORTUA: 3 pisuko etxea. 4 logela, sukaldea, garbitokia, egongela eta 3 komun. Terraza. Lorategia eta txokoa. Garajea eta trastelekua. **525.000 € / E.E.Z=E**

//ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

//GARAJEAK SALGAI

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

//BERRIAK

DURANGO

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. garaje itxia. **280.000 € / E.E.Z=E**

ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: 2.750m²-ko lursaila duen baserria. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak	
BARIKUA, 18 · 09:00-09:00	09:00-22:00
SARRIA SASIKOA 17 , Durango	SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN EL ALTO -Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 21 · 09:00-09:00
09:00-22:00	IRIGOIEN Bixente Kap ANAGA 3 - IURRETA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
ZAPATUA, 19 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 22 · 09:00-09:00
09:00-13:30	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	09:00-22:00
GAZTELUMENDI J.A. Aba SOLO 2 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO
DE DIEGO Intxaurren DO 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
NAVARRO ARTEK kalea 6 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	EGUAZTENA, 23 09:00-09:00
FARMAZIA MATIENA TRA ÑA barren 15. - ABADIÑO	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
JAIO-ABENDIBAR ER rekakale 6. - ELORRIO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN EL ALTO -Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA Mari San Pedro 31 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 24 · 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO
09:00-22:00	RUIZ, JUAN EL ALTO -Bide Zahar 14 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 20 · 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KAR mele San Miguel 15 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo ETORB. 24 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



Zorionak, **Nile (885. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 **DURANGO**
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, potxolo! Oso ondo pasa zure egunean eta topera disfrutau familia eta lagun guztiekin. Muxu handi-handi bat.



Martxoaren 16an **Uzuri** Cebrianen urtebetetze egune izen zan. Zorixonak, laztana!



Zorionak, **Oier**! Martxoaren 17an 7 urte egin ditu! Eta zorionak amatxori ere, egun berean egiten dituelako urteak. Muxu handi bat familia guztiaren partez!



Zorionak, **Gorka**! Udabarrixekin batera dator zure urtegune, eta ziur gauz laster lora barrixek urtengo dabela Martuteneko kaiolatik kanpo! Bueltan emongotsuguz zorion mosu ta besar-kada danak! Maite zaitugu!



Zorionak, **Beñat** eta **Nikole**, eta muxu haundi bat familia guztiaren partez!



Zorixonak, **Haizea**! Ze arin doazen urteak! Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez!

Eguraldia

ZAPATUA ⬇️ 18° / 7° ☀️

DOMEKA ⬇️ 18° / 19° ☁️

ASTELEHENA ⬇️ 15° / 11° 🌧️

MARTITZENA ⬇️ 16° / 9° ☁️

EGUAZTENA ⬇️ 15° / 9° 🌧️

EGUENA ⬇️ 16° / 8° ☁️



Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK

Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 **DURANGO**
Tel.: 946 202 710 - Faxes: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

"Txoko berria zabaldu dugunean jendea gogotsu ikusi dugu"

Elorrioko Ortuburu elkarte gastronomikoak txoko berria du Nizeto Urkizu kalean, eta joan zen martxoaren 12an bazkideek bazkaria egin zuten lokala inauguratzeko



Idoia Solozabal Orbegozo

ELORRIO | 1962

Joseba Markos Agirregomezkorta

ELORRIO | 1975

Ortuburuko bazkideak

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Ortuburu elkarte gastronomikoa 2009an sortu zuten, eta, iaz arte, bazkideek Urkizuaran kalean izan dute elkartzeko lekua, alokairuan. 2017an martxan hasitako proiektuaren emaitza da egoitza berria.

Bost urteren ondoren, baduzue elkarte berria. Zerk eraman zintuzten proiektu berri honetara?

Idoia: Urteetako esperientzia oso ona ikusita, pauso berri bat emateko aukera genuela ikusi genuen, gure lokal propioa lortzeko aukera. Geurea izango zen lekua eduki gura genuen, gustura egoteko, lagun arteko giroan.

Zenbat bazkide zarete?

Joseba: Bazkide mota bi daude elkartearen. Batetik, bazkide arruntak gaude, eta, bestetik, familia

bazkideak daude. Euskal Herrian lehenengoetarikoak izan ginen aukera hori zabaltzen: hau da, bazkide arruntak seme-alabek (18-27urtera arte) eta bikotekideak ere badute aukera elkartzeko, zuzendaritzak hala onartuz gero. Elkartearen sortu zenean beharrezkoa ikusi zen aukera hori ematea. Horiek kuota baxuagoa ordaintzen dute. Guztira, 65 bazkide gara Ortuburu elkartearen. Oso pozik gaude.

Zein da erronka etapa berri honetan?

Joseba: Gustura sentitzea ahalbidetzen duen bazkide kopurua lortzea da helburua. Gaur egun badugu lekua bazkide gehiago batzeko, eta onartzen diren guztiak ongietorriak izango dira. Bazkide izan gura duenak elkartzeko bazkide batek kontaktuan ipini behar

du, eskari ofiziala egiteko. Eskari hori onartu egin behar dute batzar orokorrean, eta gero ekarpena egingo da.

Txoko eta elkarte gastronomikoak tradizioa izan dira beti Elorrian.

Idoia: Bai, sei elkarte daude eta pisu handia dute herrian. Ortuburu da gazteena. Elorriar asko daude elkarteetan batuta, eta herrian antolaturiko ekitaldietan parte hartzen dute. Guk ere ildo horretan jarraitu gura dugu, herrian antolaturiko ekitaldietan parte hartuta.

Zein ekarpen ditu txoko edo elkarte baten bazkide egiteak?

Joseba: Giro lasai batean jendeagaz elkartzeko aukera ematen du. Bazkaltzeko, afaltzeko eta denbora elkarregekin partekatzeko, eta herrian ekintzak planteatzeko au-

kera ere bai. Bakoitzaren grina edo zaletasuna asetzeko modua da.

Idoia: Hori da! Etxean kozinatu ezin duzun jateko berezi hori prestatzeko leku aproposa da elkartearen.

Gustatzen zaizue sukaldean esperimentatzea?

Idoia: Bai. Gainera, taldetxoak elkarrekin gara kozinatzen. Gehiengotan denon artean prestatzen dugu jatekoa eta giro polita sortzen da.

Joseba: Bai, beste kontu bat da horretarako abilezia izatea. Al-bokoak zer eta zelan kozinatzen duen ikusita ikasten dugu txokoan, hurrengoan norberak kozinatzen, lagunentzat zein familia-koentzat. Saiatua izanez gero ikasi daiteke, baina ez horretan oso abilak garelako; ni neu ez behintzat!

Gustura sentitzea ahalbidetzen duen bazkide kopurua lortzea da helburua

JOSEBA MARKOS

Zein da gehien gustatzen zaizuen platera, jateko zein kozinatzeko?

Idoia: Niri antxumea.

Joseba: Ez dut plater berezi bat, ez jateko ez kozinatzeko. Jateko, denarik gustatzen zait, baina gauza gutxi dakit prestatzen.

Euskaldunok mahai baten bueltan hartzen ei ditugu erabaki garrantzitsuak.

Joseba: Erabakitzeak, eta ospatzeko ere bai. Ez dago bazkaririk bako ospakizunik. Ortuburur, erabaki baino gehiago, ospatu egiten dugu.

Idoia: Lagun arteko giro lasaian erabaki orekatuagoak hartzen dira.

Badu etorkizunik txokoetan elkartzeko ohiturak?

Joseba: Txoko berria zabaldu dugunean jendea gogotsu ikusi dugu, bazkaria antolatzen, bere lekua izateko. Pandemiaren aurreko egoerara bueltatzeko gogo dago. Eta baditugu seme-alabak bazkide direnak, etorkizuneko bazkide posibleak, badago harrobia.

Idoia: Etetik irten eta lagun artean batzeko ilusioa indartu du pandemiak.

Lauhortza

Mertxe Mugika
AEK



Hizkuntza hautua

Bi urte bete dira zorioneko COVID gure artean sartu zenetik. Une honetan gure begirada guztiak Ukrainari begira dade, tiro hotsak, errefuxiatuen etorrera...

Aurreko egunean, kotxean nindoala, Euskadi Irratian bi enpresa gizon (bai, antza enpresaburuak beti dira gizonak, baina gai hori hurrengo baterako utziko dut) aritu ziren esanez Ukrainako gerrarekin izugarri gogortuko dela egoera. Hain handiak izango ei dira gaitzesak egoerari ezin izango zaiola aurre egin. Ohiko urte batean bi milioi euroko faktura ordaintzen bazuten argi-ondarrian, une honetan 10 eta 12 milioi artean egon liteke ordaindu beharrezkoa. Horiek horrela, burura etorri zitzaizkion lehen konparaketa euskara planen aurrekontuekin alderatzea izan zen; euskara aholkularitza energia baino askoz merkeagoa ateratzen zaio enpresa bati!

Alderaketak alde batera utzita, euskararen kontuan gure esku dago zelan egin aurrera. Guk, euskaldunok, erabakiko dugu euskara noraino eraman gura dugun. Hautua ez dago, neurri batean behintzat, munduan gertatzen diren gorabeheren menpe. Euskaraz dakigunok euskaraz hitz egin dezakegu gure artean, koronabirusa tartean egon edo ez dakit nongo gatazka egon. Ukaezina da ez gurela bizi isolatuta, mundu globalizatu honetan denak du eragina gudan, baina ze hizkuntza hautu egiten dugun ez dago besteen esku, hori gure erabakia da.

Izurriteen eta gerren ostean gosetea etortzen omen da. Nik ez dut gura horrelakorik gerta dadin, ez horixe! Euskararen kasuan, behintzat, euskaldunon esku egongo da gogosez ez akabatzea.

Estetika gida

anboto



NUKLEO

ileapaindegia

946 582 996

Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491